

ETXETXIKIKO MIKOLAITZAK

Urkiolako mendietatik berantza datorren erreka ertzean dago etxetxiki, orain inñor be bizi ez dan baserrietxetxoa: Zubipuntako Etxetxiki.

Aritz-tantaizko baso aundi baten ertzean dago bera, eta mikolaitzez beteta egoten ei-ziran ango inguruak.

Ezin ei-ebeen bukatu ango zubia mikolaitzak, maistar gogor batzukaitik. Orregaitik egon ei-zan mikolaitzez beteta ainbeste urteetan a inguru ederra, maistar zarrak il arteraiño.

Ekzonbarri batzuk artu ei-ebeen gero Etxetxiki, eta zubi barria egiteko baimena emon ei-eutseen mikolatzai.

—*Emengo inguruetan bakie auki daigun, emoten dautzuegu baimena.*

Eta mikolaitzak erantzun:

—*Bai, bakie ta emengo inguruetako alabarik ederrena be zauen umetxoa izango da.*

Eta alantxe gertatu be gertatu ei-zan. Ume eder bat euki ei-ebeen andra-gizon gazteak, inguruetan be ederragorik egongo ez zana urteetan eta urteetan.

Gaixotu zanean be, mikolaitzak eurak osatu ei-ebeen neskatotxoa.

Eta ogei urte eukazala ezkondu zanean errian ardizaintzaille ibiltan zan mutil on bategaz, orduan joan ei-ziran betiko mikolaitzak beste leku batera, an be beste zubi barri bat egiteko asmoagaz.

1970.

Arantzateko Demoniñuaren Buztana

Arantzate izena daukon etxetorre bat dago Ibarlako ibartxoan, Irundik urrin ez dala.

Eta arri-galdu aundi bat etxetorrearen ondoan dagoan bide-ertzean.

Demoniñu oker bat ibilten ei-zan Arantzateko ume bat galduguran, eta aingeru bat agertu ei-jakon demoniñuari bein batean, andik kentzeko esaten. «*Kendu adi emengo inguruetatik. ostantzian auk ikusiko dok*», esan eutson aingeruak.

E'tzala joango andik eta e'tzala joango iñora be andik Arantzateko umetxoa galdu arte, erantzun eutson demoniñutxoak.

Eta Ayako Arritik artzen dau orduan arri aundi bat aingeruak, eta goitik bera bota demoniñu okerrari.

Baiña ariñeketiari emon onek, eta buztana bakarrik arrapau ei-eutson gixajuari, eta arrantzaka joan ei-zan Napparoaruntza, Aldabeko bideetatik.

Eta arripean gelditu egin ei-zan betiko demoniñotxoaren buztana.

Orain be orixe berori esaten dabee Ibarlakoak, eta infernuko kantak entzuten ei-dira iñoz neguan, aize-egunetako gauberdietan.

1970.

Gizontxo Mutua

Erreka-ertzeko arriartean ibilten ziran olgetan gure auzoko ume txikiak, eta asarratu egin ziran bein euren artean.

Gizon txiki bat agertu jakeen orduan. Bizar zuri-zuriduna zan gizontxoa, eta silbot aundiduna. Makilla-araki ebagi-barri bat eskuan, eta ezer esan ezbaetzian be, begirakuna gogorra egin eutsoen umeai.

Ixilik eta geldi-geldirik geratu ziran danak, eta bakoitza bere lekura joan arte ez eban ikararik egin gizontxoak.

Agoa zabalik egozan danak, eta barriro be euren lekuan baketsu ikusi ebazanean, bere bidetik jarraitu eban bizarzuridunak. An joan zan, ibai-ertzeko basoaren bidetik

Ume okerrak zigortzeko etorten dan mikolaitza izan ei-zan a gizontxo mutua.

1970.

BITAÑO.